

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko abenduaren 23tik abenduaren 29rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/12/27

- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** Honen akats-zuzenketa: HFP/1284/2023 Agindua, azaroaren 28koa, "Aseguru-primen gaineko zerga. Autolikidazioa" izeneko 430 eredu onesten duena, hura aurkezteko modua eta prozedura zehazten dituen, 165, 180, 184, 188, 189, 193, 194, 196, 198 eta 296 ereduak erregistratzeko diseinuak onesten dituzten ministerio-aginduak aldatzen dituen eta 289 eredu onesten duen ministerio-aginduaren I. eta II. eranskinetako edukia eguneratzen duena. **26332 xedapena – 2 or.**
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Laguntzak.** 1013/2023 Errege Dekretua, abenduaren 5koa, zeinaren bidez aldatzen baita Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsa garatzen duen abenduaren 29ko 1173/2015 Errege Dekretua, arrantza-jarduera behin betiko eta aldi baterako geldiarazteko laguntzei dagokienez. **26333 xedapena – 3 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Petrolioaren sektorea.** TED/1376/2023 Agindua, abenduaren 20koa, Petrolio-produktuen Erreserba Estrategikoen Korporazioaren 2024. ekitaldiko kuotak onesten dituen. **26334 xedapena – 2 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantza.** 2023ko abenduaren 18ko Ebazpena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, Gizarte Segurantzaren nahitaezko diru-bilketarako zenbait unitateren lurralde-eremua aldatzen duena. **26335 xedapena – 4 or.**

2023/12/28

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Presako neurriak.** 8/2023 Errege Lege Dekretua, abenduaren 27koa, Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko eta lehortearen ondorioak arintzeko neurriak hartzen dituen. **26452 xedapena - 149 or.**
- **PRESIDENTETZAKO, JUSTIZIAKO ETA GORTEEKIKO HARREMANETAKO MINISTERIOA. Mugaketa eta egituraketa judiziala.** 1170/2023 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, 2023ko programazoiari dagozkion hirurogeita hamar unitate judizial sortu eta egituraketa judiziala egokitzeak. **26453 xedapena - 39 or.**
- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** 1171/2023 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua, abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren bidez onetsia; Zerga Berezien Erregelamendua, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsia; eta zerga zuzenen gaietako adiskidetasunezko prozeduren Erregelamendua, azaroaren 3ko 1794/2008 Errege Dekretuaren bidez onetsia. **26454 xedapena - 23 or.**
- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA. Inbertsio Kolektiboko Erakundeak.** 1180/2023 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez aldatzen baitira Inbertitzaileen Kalte-ordainetarako Sistemei buruzko 948/2001 Errege Dekretua, abuztuaren 3koa, eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamendua, uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsia. **26463 xedapena - 22 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantzak.** ISM/1385/2023 Agindua, abenduaren 21ekoa, zeinaren bidez aldatzen baita TAS/2865/2003 Agindua, urriaren 13koa, Gizarte Segurantzaren Sistemako hitzarmen berezia arautzen duena. **26464 xedapena - 3 or.**

2023/12/29

- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** HFP/1396/2023 Agindua, abenduaren 26koa, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren kudeaketan aplikatu beharreko batez besteko salmenta-prezioak onesten dituen. **26631 xedapena - 2104 or.**

- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** HFP/1397/2023 Agindua, abenduaren 26koa, honako hauek aldatzen dituena: EHA/1274/2007 Agindua, apirilaren 26koa, zeinaren bidez onesten baitira 036 eredia —Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan alta, aldaketa eta baja egiteko zentsu-aitorpena— eta 037 eredia —Enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan alta, aldaketa eta baja egiteko zentsu-aitorpen erraztua—; EHA/3695/2007 Agindua, abenduaren 13koa, zeinaren bidez onesten baita Zergapekoen erroldan alta hartzeko eta helbidea, datu pertsonalak eta harremanetarakoak aldatzeko aitortenaren 030 eredia; EHA/3111/2009 Agindua, azaroaren 5koa, zeinaren bidez onesten baita balio erantsiaren gaineko zergaren urteko aitorten-likidazioaren 390 eredia; HAP/2194/2013 Agindua, azaroaren 22koa, zeinaren bidez arautzen baitira tributuen arloko zenbait autolikidazio, aitorten informatibo, zentsu-aitorpen, komunikazio eta itzulketa-eskaera aurkezteko prozedurak; eta 289 eta 345 ereduak onesten dituzten aginduak. **26632 xedapena – 42 or.**
- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. Nekazaritzako ustiategiak.** APA/1398/2023 Agindua, abenduaren 26koa, 2024rako erreferentziazko errenta finkatzen duena. **26633 xedapena– 1 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Sistema elektrikoa.** 2023ko abenduaren 26ko ebazpena, Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez onesten baitira energia-likidazioaren ondorioetarako kontsumo-profila eta kalkulu-metodoa, kontsumo-ordutegiaren erregistrorik ez duten kontsumitzaileen 4. motako eta 5. motako neurketa-puntuetan aplikatzekoak, 2024. urterako neurketa-puntuen erregelamendu bateratua onesten duen abuztuaren 24ko 1110/2007 Errege Dekretuaren arabera. **26634 xedapena – 243 or.**
- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA. Abalak.** 2023ko abenduaren 27ko ebazpena, Ekonomiako eta Enpresari Laguntzeko Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen baita 2023ko abenduaren 27ko erabaki bat Ministroen Kontseiluaren 2023ko abenduaren 5eko erabakia aldatzen duena. Erabaki haren bidez, enpresei eta autonomoei emandako finantziatorako abal-lerroaren hirugarren tartearen terminoak eta baldintzak ezartzen ziren; tarte hori martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuak ezarri zuen, zeinaren bidez presako neurri batzuk hartu baitziren Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren esparruan, eta aldatu baitziren Ministro Kontseiluaren 2022ko maiatzaren 10eko, urriaren 11ko, azaroaren 22ko eta abenduaren 27ko zenbait erabaki, Errege Lege Dekretu horren 29. artikulua araututako abal-lerroaren lehen eta bigarren tarteak garatzen dituztenak, eta Ministro Kontseiluaren 2023ko maiatzaren 23ko erabakia, zeinaren bidez oinarritzko elementuak ezartzen baitira Compañía Española de

Reafianzamiento SME Sociedad Anónimari (CERSA) Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak 500.000.000 euroko abal bat emateko, martxoaren 29ko 6/2022 Errege Lege Dekretuak gaitutako 10.000.000.000 euroko lerroaren kargura, eta CERSAren hornidura teknikoen funtsa birjartzeko epeak aldatzen baitira. **26636 xedapena – 5 or.**

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Babes zibila.** 12/2023 Legea, azaroaren 23koa, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuei buruzkoa. **26637 xedapena- 20 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Osasun publikoa** 13/2023 Legea, azaroaren 9koa, Euskadiko Osasun Publikoarena. **26638 xedapena– 68 or.**
- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Kultura-ondarea** 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa. **26639 xedapena– 4 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2023/12/29

- **LEHENDAKARITZA.** 15/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Enpleguarena. **5767 xedapena – 76 or.**
- **LEHENDAKARITZA.** 19/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Finantzen Euskal Institutua Erregulatzen duena. **5768 xedapena – 12 or.**
- **LEHENDAKARITZA.** 20/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa. **5769 xedapena – 40 or.**
- **LEHENDAKARITZA.** 21/2023 LEGEA, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2024. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen. **5770 xedapena – 121 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2023/12/27

- **OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA.** Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2023 Foru Dekretua abenduaren 19koa. Onespena ematea honako hauek aldatzeari: 3/2011 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Zergadunen Errolda eta horren inguruko

betebeharrak arautzen dituen; 71/2008 Foru Dekretua, uztailaren 8koa, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituen, eta 111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra. **3715C xedapena - 16 or.**

2023/12/29

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK.** 25/2023 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, zeinak berresten baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzak hitzarmena luzatzeko eta aldatzeko gehigarria, Aiaraldea eskualdeko lehentasunezko jarduketak eremuak berrabiarazteko planaren barruko "Zerbitzu turistikoaren eskaintza integratua garatzea" proiektuaren esparruan jarduketak egiteko. **3736C xedapena - 5 or.**
- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK.** 23/2023 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, Fortuna Handien gaineko Aldi Baterako Elkartasun Zerga arautzen duena. **3738C xedapena - 11 or.**
- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK.** 24/2023 Foru Araua, abenduaren 15ekoa, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra aldatzeko, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioan (zuzentarau horren bidez, Fiskalitate arloko Administrazio Lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen da); eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Araua aldatzekoa. **3739C xedapena - 9 or.**
- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK.** 26/2023 Foru Araua, abenduaren 22koa, 2024. urterako zerga neurriei buruzkoa. **3770C xedapena - 28 or.**

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2023/12/26

- **BIZKAIZKO BATZAR NAGUSIAK.** 9/2023 FORU ARAUA, abenduaren 15ekoa, fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun-zergarena. **I-1535 xedapena - 11 or.**
- **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 697/2023 FORU AGINDUA, abenduaren 19koa, zeinaren bidez aldatu egiten baita Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren abenduaren 11ko 2190/2017 Foru Agindua. Foru-agindu haren bidez, lanaren etekinen, jardura

ekonomikoen etekinen eta sarien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpenaren 190 eredia onetsi zen. **I-1552 xedapena - 7 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2023/12/27

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 569/2023 Foru Agindua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez aldatzen baitira martxoaren 5eko 91/2020 Foru Agindua, balore, aseguru eta errenten urteko aitorten informatiboa aurkezteko 189 eredia onesten duena, eta abenduaren 17ko 668/2014 Foru Agindua, «Atxikipenak eta konturako sarrerak. Loteria eta apustu jakin batzuetatik eratorritako sarien gaineko karga berezia. Urteko laburpena» izena duen 270 eredia onetsi eta hura aurkezteko baldintzak eta prozedura ezartzen dituen. **9311 xedapena - 7 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 570/2023 Foru Agindua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez onesten baitira 172 eredia, «Diru birtualeko saldoei buruzko aitorten informatiboa» izenekoa, 173 eredia, «Diru birtualarekin egindako eragiketei buruzko aitorten informatiboa» izenekoa, eta horiek aurkezteko moduak eta epeak. **9316 xedapena - 35 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 571/2023 Foru Agindua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez onesten baitira «Atzerrian kokatutako diru birtualari buruzko aitorten informatiboa» izena duen 721 eredia eta hura aurkezteko modua eta epea, eta zeinaren bidez aldatzen baita 168/2022 Foru Agindua, martxoaren 17koa, «Atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzko aitorten informatiboa» aurkezteko erabili beharreko 720 eredia eta haren aurkezpen modu eta diseinu logikoak onesten dituen. **9317 xedapena - 12 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 573/2023 Foru Agindua, abenduaren 16koa, zeinaren bidez onesten baitira hidrokarburo jakin batzuek eraman behar dituzten trazatzaile eta markatzaileak Zerga Bereziei buruzko uztailaren 26ko 4/2023 Foru Dekretu Arauemailean ezarritako tasa murriztuak aplikatzeko. **9318 xedapena - or.**

2023/12/28

- **DIPUTATU NAGUSIA.** 2/2023 Foru Araua, abenduaren 21ekoa, zeinaren bidez aldatzen baitira martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiteko (zuzentaru horrek 2011/16/EB Zuzentaru

aldatzen du, fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa), bai eta beste zerga arau batzuk ere. **9445 xedapena – 9 or.**

- **ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA.** 55/2023 Foru Dekretua, abenduaren 12koa, zerbitzuen erabiltzaileen gehieneko ekarpen ekonomikoak onesten dituen eta aldatzen duena ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko mendekotasuna dutenentzako arreta zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoaren araubidea. **9163 xedapena – 2 or.**

2023/12/29

- **DIPUTATU NAGUSIA.** 3/2023 Foru Araua, abenduaren 28koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Fortuna Handien gaineko Aldi Baterako Elkartasun Zergarena. **9628 xedapena – 6 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 2/2023 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 28koa, aurrekontuen luzapenak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera zerga arloan izango duen eragina zehazten duena eta zerga eta aurrekontu arloan premiazkoak diren zen bait neurri onesten dituen. **9616 xedapena – 9 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 582/2023 Foru Agindua, abenduaren 27koa, zeinaren bidez aldatzen baita abenduaren 20ko 688/2021 Foru Agindua, Ezegoiliarren errentaren gaineko zergan establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenta jakin batzuen atxi kipenak eta konturako sarreraren urteko laburpena aitortzeko 296 ereduak eta haren aurkezpen moduak eta epeak onartzen dituen. **9542 xedapena – 50 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 586/2023 Foru Agindua, abenduaren 27koa, «Per - tsona fisikoaren errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jardueraren ekonomikoaren etekinen eta sariaren gaineko atxi kipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena» izeneko 190 ereduak onartu, eta hura aurkezteko moduak eta epeak ezartzen dituen. **9585 xedapena – 32 or.**
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 590/2023 Foru Agindua, abenduaren 28koa, abenduaren 5eko 545/2023 Foru Aginduan izandako akatsa zuzentzen duena. Balio erantziaren gaineko zergaren urteko aitortzen laburpena aurkezteko 390, 392 eta 393 ereduak, 390, 392 eta 393 ereduaren erantskin komuna eta horiek aurkezteko moduak, tokiak eta epeak onetsi dira foru agindua horren bidez. **9621 xedapena – 10 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO